

JESUS ETA EMAKUME SAMARIARRA

1

Samariako emakume bat
pekatari ezaguna,
ur bila joanda, aurkitu eban
salbatu eban Laguna.

2

Ontzi ta guzti hurreratu zan
Jesus egoan tokira,
ta Honek ura eskatu eutson
egarri biziz begira.

3

- "Egarri nozu ta emoidazu
asetuko nauan ura".
Emakumeak harri ta orma
erantzun eutson puntura:

4

- "Zu judegua izanik eta
ni, barriz, samariarra,
zelan eskatzen deustazu ura?
Bete daigun lege zaharra".

5

- "Ai, zuk bazenki nor daukazun gaur
ura eskatzen aurrean,
laster zengokez Berari ura
zeuk eskatu beharrean"!

6

- "Zuk ez daukazu ontzirik eta
potzua da hain sakona".
- "Ai nire ura berezia da
zeruraino dariona".

7

- "Emoidazu, ba, zure uretik
izan ez nadin egarri".
- Zoaz ta ekar zure senarra
eta emon nire barri".

8

Zazpigarrenaz bizi zan baina
ez senar eta ez gizon,
bere bizia argi ta garbi
aurrean agertu eutson.

9

Jesusen sutan eta pozetan
sentidu zan bizi barriz,
herrira joanda, jende ugari
Berarengana ekarriz.

10

Zein garden gozo dogun Jesusen
Bihotzeko iturria!
Horrek zuzentzen deusku bizitza
ta asetzen egarría.